



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Arriaga Antzokiak eta Carlos Mena kontratenoreak kantarien entzunaldiak egingo dituzte, 2020ko apirilean estreinatuko den *21 Lágrimas* ekoizpen lan berrirako

- Arriaga Antzokiak e-mail bat egokitu du abenduaren 18ra arte proposamenak jasotzeko, eta, horien arabera, hautagaien aurre-aukeraketa egingo du, eta entzunaldietara deituko ditu.
- Entzunaldiak Arriaga Antzokian izango dira urtarrilaren 27tik 31ra, eta Carlos Menak *21 Lágrimas* ikuskizunean bere ondoan arituko diren 7 ahotsak aukeratuko ditu; aurreko egunetan Master Class bat emango die aukeratutakoei.
- *21 lágrimas* 2020ko apirilaren 19an taularatuko da eta Europako musika errenazimenduko obra nagusitik, Orlando di Lassoren "Lagime di San Pietro" lanetik, egingo den benetako bidaia izango da.

Bilbon, 2019ko azaroaren 19an.- Arriaga Antzokia denboraldi honetako bere ekoizpen berezietako bati forma ematen hasi da. *21 lágrimas* izango da, eta Carlos Mena kontratenoreak eta horretarako berariaz aukeratutako zazpi abeslari lirikok emozioa, bertuosismo adierazkorra eta numerologia batzen dituzten 21 hasperen musikal interpretatuko dituzte. Bidaia oparoa izango da Orlando di Lassoren "Lagime di San Pietro" lanetik, Europako musika errenazimenduko obra nagusitik, eta Arriagako agertokian antzeztuko da 2020ko apirilaren 19an.

Orain, Arriaga antzokiak, kantarien aukeraketa egin gura du, zazpi guztira, Carlos Menarekin batera kontzertu horretan aritzeko. Horretarako, urtarrilaren amaieran (27tik 31ra) entzunaldiak egingo dituztela iragarri du, eta Menak berak egingo du aukeraketa hautagaien artean.

Entzunaldi horietan parte hartzeko interesa duten soprano, mezzosoprano, kontralto, kontratenore, tenore, baritono eta baxu guztiek euren hautagaitza bidali beharko dute, idatzizko proposamen bat (CV) eta ahozko beste bat (1750. urtea baino lehenagoko pieza baten grabazioa) barne, Arriaga Antzokira, abenduaren 18ra arte (egun hori barne). Arriaga Antzokiak proiektu horretarako beren-beregi prestatutako helbide elektronikoaren bidez baino ez ditu jasoko materialak: audiciones@teatroarriaga.eus. Komunikazio bide horren bitartez argituko dira, gainera, hautagaiek bete behar dituzten betekizun zehatzei buruz sortu daitezkeen zalantzak edo galderak. www.teatroarriaga.eus webgunean ere kontsulta daitezke.

Entzunaldietarako aurre-aukeraketa

Abenduaren 18ra arte jasotako proposamenen arabera, Arriaga Antzokiak hautagaien aurre-aukeraketa egingo du, eta aurre-aukeratutakoei hitzordua bidaliko die antzokian

zuzeneko entzunaldia egiteko. Gainera, entzunaldian interpretatu beharko duten musika pieza zein den adieraziko zaie. Entzunaldiak 2020ko urtarrilaren 27tik 31ra bitarteko astean egingo dira, kantari bakoitzarekin zehaztuko den orduan, eta hortik aterako da Carlos Mena kontratenoreak apirilaren 13tik 18ra *21 lágrimas* ikuskizunerako prestatzeko emango duen master-clasean parte hartzeko 7 hautatuen taldea, ikuskizunean ere parte hartuko duena apirilaren 19an, igandean, 19:00etan.

21 lágrimas

Lagime di San Pietro

Pedagogia eta Musika zuzendaritza: **Carlos Mena**
Antzerki eta antzezle zuzendaria: **Iker Ortiz de Zarate**

Arriaga Antzokiaren ekoizpen lan berria

Informazio gehiago:
Komunikazioa - TEATRO ARRIAGA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus